

2024ko apirila



A itsatsia

OHARRA: asteriskoz* eta *kurtsibaz* idatzitakoak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

Zenbait euskal hitzek berezkoa dute amaieran “a” letra, artikulua ez dena: azoka (**azok*), lotsa (**lots*), izkina (**izkin*)... Kontuan hartu behar da, hitz hauek ez dutela “a” letra galtzen hitzaren ondoren zenbatzaile edo izenondoren bat jartzen denean: saltsa bat (**salts* bat), anaia gaztea (**anai* gaztea).

Beste zenbait kasutan, hitzek ez dute “a” itsatsia. “A” behar dutenean hartzen dute (artikulua), eta behar ez dutenean ez dute hartzen: zuhaitza eta zuhatz hori.

ZEIN HITZEK DARAMATE “A” ITSATSIA?

1. ATZIZKI EDO AMAIEREZ OSATUAK:

- **-keria**: alferkeria, handikeria...
- **-tura/dura**: prozedura, abiadura, ohitura...
- **-tza**: idazkaritza, agintaritza...
- **-kuntza**: berrikuntza, irakaskuntza...
- **-(k)ada**: besarkada, eskukada, matxinada...
- **-kintza/-gintza**: zapatagintza, kulturgintza...
- **-(t)eria**: gazteria, tresneria, gizarteria...
- **-(k)era**: harrera, bukaera, idazkera,...
- **-(k)eta**: hizketa, azterketa, ikasketa...
- **-gura/-kura**: logura, azkura,...
- **-bera**: bihozbera, hozbera, sentibera,...
- **-aia**: paisaia, bidaia, luzemetraia,...
- **-antza**: mudantza, mesfidantza,...

A ITSATSIA DUTEN HITZAK (OHIKO AKATSAK):

- | | | |
|----------------|--------------|--------------|
| • aisia | • fantasia | • konpainia |
| • aitzakia | • feria | • kopia |
| • animalia | • galeria | • kultura |
| • arnasa | • gaztaina | • legeria |
| • arrautza | • gaztelania | • lotsa |
| • ausardia | • giltza | • literatura |
| • bidaia | • gizateria | • magia |
| • bijilia | • grazia | • maila |
| • botila | • habia | • natura |
| • burdina | • harea | • neskatala |
| • egia | • heriotza | • ordena |
| • eliza | • hezkuntza | • pertsona |
| • emaitza | • hizkuntza | • piztia |
| • erromeria | • ideia | • polizia |
| • eskasia | • inbidia | • premia |
| • esperientzia | • iskanbila | • probintzia |
| • familia | • justizia | • tamaina |

2. JATORRIZKO ERDARAN “A” LETRAZ BUKATZEN DIREN HITZ GUZTIAK

- **Adibidez**: justizia, ironia, finantza, ekonomia, literatura....

3. BEREZKO “-a” NOIZ GALTZEN DEN

“A” itsatsia duten hitz batzuk, hitz-elkartearen lehen osagaia direnean “a” gal dezakete:

- -IA bukaera duten hitzak: biologi azterketa, geologi irakaslea, pedagogi berrikuntza, orografi arauak ...
- Eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura eta literatura hitzak: eliz agintariak, burdin fabrika, hizkuntz gaitasuna...

Bi multzo horietako hitzak hiru eratan idazteko aukera dago hitz-elkarketan:

- Berezko “a” gabe eta marratxorik gabe: bidai agentzia, kultur ekintza, hizkuntz irizpidea...
- Berezko a-z eta marratxo: bidaia-agentzia, kultura-ekintza, hizkuntza-irizpidea...
- Berezko a-z eta marratxorik gabe: bidaia agentzia, kultura ekintza, hizkuntza irizpidea...

4. KONTUAN HARTZEKO:

- Kontuan hartu behar da azken a hori ez dela galtzen mugagabeen deklinatzean:
 - *zenbait animaliek --> zenbait animaliak
 - *hainbat pertsonek --> hainbat pertsonak



Ohiko erdarakadak: **aurkitu**

✗ ***ARETOA DONOSTIAN AURKITZEN DA.**
→ ✓ **ARETOA DONOSTIAN DAGO.**

✗ ***MIN HARTU DU ETA GAZKI AURKITZEN DA.**
→ ✓ **MIN HARTU DU ETA GAIZKI DAGO.**



BILATU



AURKITU



Egin kontu!



KASKOA ERABILTZEA DERRIGORREZKOA DA

Kasu honetan:

CASCO $\neq$ BUREZUR

Hizkuntza paisaia aldi baterako jarritako elementuek ere osatzen dute, eta horiei behar bezalako garrantzia eman behar diegu.

Hizkuntz paisaia euskaratzeak giro soziolinguistikoan eragiten du, eta errotulazio ofizialetatik haratago jo behar da.

Zain dezagun euskara!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Hainbatetan ikusi ditugu euskarazko itzulpen desegoki eta xelebreak gure inguruan: lantokietako hizkuntza-paisaia, obretako seinalizazioetan, dendetako eskaparateetan... Baina, ba al dakigu itzulpen horiek zergatik dauden gaizki eta nola zuzendu?

Horregatik sortu dugu EGIN KONTU! atala, eta zuen laguntza behar dugu atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu.

Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!